

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2021eko iraila

Aurkibidea

1. EAEko BPGaren hazkundera
2. Gizarte Segurantzako afiliazioa
3. Langabezia erregistratua
4. PMI konposatua
5. Sentimendu ekonomikoa
6. NDFren aurreikuspenak
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. EAEko ekonomia %18,5 hazi zen aurtengo bigarren hiruhilekoan.

Hiruhileko arteko tasak %2,0ko gehikuntza eskuratu zuen.

2. Abuztuan enplegua sortzeko erritmoa moteldu zen.

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,5 igo zen aurreko urteko datuaren aldean.

3. Langabezia erregistratuak nabarmen egin zuen behera udako hilekoetan.

Lanbideko bulegoek 2020ko abuztuan baino %16,5 gutxiago erregistratu zuten.

4. Euroguneko PMI konposatua apaldu zen abuztuan.

Manufakturrek bizitasuna galdu dute hornigaien eskasiaren ondorioz.

5. Euroaren eremuko sentimendu ekonomikoak baikortasun handia erakutsi du.

Uztaileko errekorren ondoren, abuztuan balio apalxeagoa lortu zuen, baina oso dinamikoa.

6. Munduko ekonomiaren susperraldian ziurtasunik ez dago.

Txertoak eskuratzeak eremu ekonomikoen arteko aldeak zehaztuko ditu.


7. Hilabeteko laburpena.

Igurikimen baikorrak udaren ostean.

EAEko ekonomia %18,5 hazi zen aurtengo bigarren hiruhilekoan

BARNE PRODUKTU GORDINA
Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO BPGA
2. HIRUHILABETEA
%18,5




Eustatek urteko bigarren hiruhilekorako kontu ekonomikoen aurrerapena argitaratu du, eta jarduera ekonomikoa %18,5 bizkortu dela adierazi du, urte arteko tasaren terminoetan. Horrek esan nahi du aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatu dela, eta hilabete horiek Covid-19ren pandemiaren hedapena mugatzeko ezohiko murrizketek markatu zituzten. Hazkunde handi hori bat dator eskaintzaren eta eskariaren egoeraren adierazleek 2021eko apiriletik

ekainera bitartean erregistratu zituzten igoerekin. Txertaketaren erritmoak eta murrizketen pixkanakako altxamenduak dinamismo bizi hori ekarri dute beraiekin. Bestalde, erregistro hori ez da asko urruntzen Eusko Jaurlaritzak egindako aurreikuspenetik, bigarren hiruhilekoko hazkundea %18,1ean kokatu baitzuen.

Hiruhileko arteko tasetan, EAEko BPGa %2,0 hazi zen.

BARNE PRODUKTU GORDINA
Hiruhileko arteko aldakuntza tasa


HIRUHILEKO ARTEKO BPGA
1. HIRUHILABETEA
%2,0



ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO ENPLEGUA 2. HIRUHILABETEA **%16,6**



Lan merkatuari dagokionez, enpleguari buruzko datuek oso bilakaera positiboa erakutsi dute. Izan ere, enpleguak, lanaldi osoko lanpostu baliokide gisa neurtuta, %16,6 egin du gora aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Kopuru hori urteko bigarren hiruhilekoan lanaldi osoko 134.000 lanpostu inguru sortzearen baliokidea da.

Urte arteko tasa ez dator bat Ekonomia eta Plan-gintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenare-


kin; izan ere, azken berrikuspenean, %15,0ko enplegu hazkundea aurreikusten zen. Hiruhileko arteko datuei erreparatuta, enpleguak %2,1 egin du gora, eta horrek esan nahi du lau hiruhilekotan jarraian egin duela gora, aldaketa positiboekin.

Aurtengo azken bi hiruhilekoetarako, urtetik urterako tasa positiboak espero dira, susperraldi ekonomikoaren prozesua finkatuko eta indartuko dutenak.

ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA 2. HIRUHILABETEA **%2,1**



Iturria: Eustat



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Abuztuan enplegua sortzeko erritmoa moteldu zen

Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,5 egin zuen gora abuztuan, urte arteko tasan, oraindik ere oso tasa esanguratsua, baina ekaineko eta uztaileko emaitza bikainak baino ia puntu bat gutxiago. Enpleguaren hazkunde erritmoa moteldu egin da, 2020ko udan gero eta jarduera gehiago normaltasunera itzuli zirelako. Zentzu horretan, pentsatu behar da ezohiko kopuruak ekainekoak eta uztailekoak izan zirela, eta abuztuko tasak,

berriz, konparazio homogeneoago bati erantzuten diola. Guztira, aurreko urteko abuztuan baino 14.500 afiliazio gehiago daude gaur egun Gizarte Segurantzari. Horietatik 7.400 gizonak izan ziren eta 7.100, berriz, emakumeak. Halaber, aipatu behar da ABEE baten eraginpean zeuden pertsonen kopurua 10.400 inguru izatera jaitsi zela, urte hasieran kopuru hori 32.100 pertsonakoa zen bitartean.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

ABUZTUKO AFILIAZIOA


+%1,5



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Jarduera ekonomiko gehienek gora egin dute afiliazioen kopuruan, baina nabarmentzekoa da administrazio jardueren eta zerbitzu osagarrien gorakada handia. Orobat, osasun jardueretan eta hezkuntzan ere gorakada handiak gertatu dira. Afiliazio gehien biltzen dituen ekoizpen jarduerak

ere, manufakturen industriak, alegia, igoera nabarmena izan du.

Aitzitik, jarduera adar batzuek afiliazioak murrizten dituzte, nahiz eta gehienek kopuru ez oso esanguratsuetan egiten duten. Salbuespena ostalaritza eta finantza jarduerak dira.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2020ko abuztua	2021eko abuztua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	938.585	953.121	14.536
Industria manufakturagileak	167.983	169.691	1.707
Merkataritza	136.154	136.417	262
Osasun arloko jarduerak	110.953	113.447	2.494
Hezkuntza	64.640	66.894	2.254
Administrazio jarduerak	64.043	67.255	3.212
Ostalaritza	58.383	57.761	-622
Lanbide jarduerak	55.634	57.328	1.694
Eraikuntza	56.509	56.897	388
Administrazio publikoa	48.107	48.753	646
Garraioa	41.896	42.909	1.012
Etxeko langileak	28.626	29.069	443
Bestelako zerbitzuak	25.348	25.156	-191
Informazioa eta komunikazioa	23.096	23.936	840
Finantza jarduerak	17.452	17.048	-404
Jarduera artistikoak	14.364	14.978	614
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.508	12.422	-86
Or horniketa	6.582	6.807	225
Higiezin jarduerak	4.170	4.163	-6
Energia horniketa	1.523	1.567	44
Erauzketa industriak	558	548	-10
Lurraldez kanpoko erakundeak	56	75	19

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.




LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Langabezia erregistratuak nabarmen egin zuen behera udako hilekoetan

Abuztuan, Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabetzat jotzen diren pertsonen kopurua duela urtebete zegoena baino %16,5 txikiagoa izan zen. Jaitsiera handi horrek jarraipena ematen die ekainean (-%15,3) eta uztailean (-%16,9) ezagutzera eman ziren aldakuntza tasen beherakadei; beraz, oro har, uda honek zenbaki onak utzi ditu atal honetan. Hala eta guztiz ere, egoera horretan


jarraitzen duten pertsonen kopurua 122.260 da, hau da, 2019ko abuztuan, pandemia hasi aurretik, erregistratu zirenak baino 6.000 gehiago. Beraz, oraindik ez da koronabirusa iritsi aurreko egoerara itzultzea lortu. Langabe kopuru horretatik, 52.934 gizonak dira eta 69.326, berriz, emakumeak. Langabeziaren jaitsiera nabarmenagoa da gizonen artean, baita 2020an izandako igoera ere.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. ABUZTUA -%16,5

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA. GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Pandemiaren etorrerak gehien kaltetutako kolektiboetako bat gazteena izan zen; izan ere, ia bikoiztu egin zen langabezian zeuden pertsonen kopurua, 2019ko abuztuan 7.600 izatetik 2020ko irailean 14.600 izatera igaro baitzen. Hala ere, ekonomia suspertzearen ondorioz, abuztuan 9.300 pertsona izatera mugatu da gazte langabeen kopurua.

Beste aldetik, langabezian zeuden atzerritarrak 17.300 ziren 2019ko abuztuan eta 24.000ra igo zen kopurua iazko udan. Orain, berriz, 18.500ra gutxitu da kantitate hori. Bai gazteen kasuan, bai atzerritarren kasuan, langabeziaren beherakadaren erritimoa biztanleria osoarena baino nabarmen azkarra da.

LANGABEAK

	2020ko abuztua	2021eko abuztua	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	146.450	122.260	-24.190
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	24.987	20.702	-4.285
Bizkaia	81.641	69.528	-12.113
Gipuzkoa	39.822	32.030	-7.792
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	66.399	52.934	-13.465
Emakumeak	80.051	69.326	-10.725
25 urtetik beherakoak	13.438	9.343	-4.095
25 urte baino gehiago dutenak	133.012	112.917	-20.095
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.879	2.488	-391
Industria	17.771	13.964	-3.807
Eraikuntza	9.608	8.209	-1.399
Zerbitzuak	98.299	82.854	-15.445
Lehenago lan egin dutenak	128.557	107.515	-21.042
Lehenago lan egin ez dutenak	17.893	14.745	-3.148
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	23.966	18.530	-5.436

Iturria: SEPE.

Euroguneko PMI konposatua apaldu zen abuztuan


Uztailean azken hamabost urteetako baliorik handiena (60,2) markatu ondoren, abuztuan Euroguneko PMI konposatua zertxobait gutxitu zen, 59,5 puntura jaitsi arte. Zifra horrek oraindik konfiantza handia erakusten du Europako enpresen artean. Nabarmentzekoa da zerbitzuen adierazlea manufaktura baino handiagoa izan dela hilabe-

te horretan, pandemia hasi zenetik lehenengo aldiz. Zehazkiago adierazita, zerbitzuen adierazlea 59,7koa izan zen, aurreko datua baino hamarren bat beherago, eta manufaktura, berriz, uztaileko 61,1etik abuztuko 59,2ra igaro zen. Bestalde, langileen kontratazioak hogeita bat urteko mailarik altuenean jarraitu zuen.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2021EKO ABUZTUA


59,5




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Alemaniak dinamismo handia erakutsi zuen berriro, baina uztaileko datura iritsi gabe, hori izan baitzen bere mailarik gorena hogeitahiru urtean. Zerbitzuak apur bat besterik ez ziren moteldu eta manufakturak, berriz, hornidura falta nabaritu zuten. Frantziaren kasuan, motel-tzea handiagoa izan zen, manufakturek okerre-ra egin zutelako hornikuntza eskasiaren ondorioz. Aitzitik, gainerako eurogunean abuztuko emaitza uztailekoa baino handiagoa izan zen, bai zerbitzuek bai manufakturek hazkunde erritmo handiak izan zituztelako. Eurogunetik kanpo, Japoniaren jarrera negatiboa eta Erresuma Batuaren konfiantzaren norabide aldaketa bortitza nabarmendu behar dira.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit.




EKONOMIA SENTIMENDUA

Euroaren eremuko sentimendu ekonomikoak baikortasun handia erakutsi du

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

ABUZTUKO DATUA

117,5




Abuztuan, euroguneko sentimendu ekonomikoak intentsitate apur bat galdu zuen uztailean izandako maximoarekin alderatuta, baina azken hogeitazko balio altuenen artean mantendu zen. Zehazkiago kontatuta, 119,0 puntutik 117,5 puntura jaitsi zen. Bi sektore ekonomiko nagusiek hartu zuten parte bultzada txikiago horretan, nahiz eta oraindik ere dinamismo handiko posizioetan egon. Hala, industriak marka hautsi zuen uztailean (14,5) eta abuztuan 13,7 puntura moteldu zen. Bestalde, zerbitzuak 16,8 puntura jaitsi dira, bere serie historikoan oraindik kopuru

esanguratsua dena. Familien konfiantzak apur bat okerrera egin zuen abuztuan, nahiz eta oraindik baikortasun nabarmena erakutsi. Kontrako norabidean, txikizkako merkataritzak eta eraikuntzak uztaileko balioak hobetu zituzten abuztuan, eta biak beren batez besteko historikoen oso gainetik daude. Beste aldetik, enpleguaren igurikimenean adierazleak hobekuntza nabarmena izan zuen uztailearekin alderatuta, eta 112,8 puntutan kokatu zen, 2000. urteko maiatzeko maximo historikotik lau puntura.


SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROPAR
BATASUNA

ABUZTUKO DATUA

116,5




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Alemaniak errekor historikoa lortu zuen uztailan (117,5) eta abuztuan hamarren gutxi batzuk besterik ez zuen galdu (117,2). Herrialdeko industriak estatistika horren baliorik handiena jaso zuen abuztuan, nahiz eta bai zerbitzuek bai txikizkako merkataritzak dinamismo pixka bat galdu zuten. Bestalde, Frantziak indarra galdu zuen abuztuan eta bere maila errekorretik bederatzirantz dago orain. Herrialde horretan, industriak eta zerbitzuek intentsitatea galdu zuten eta familien konfiantzak okerrera egin zuen. Hala ere, txikizkako merkataritzak eta eraikuntzak baikortasuna irabazi zuten.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Italiak ere atzerapauso bat eman zuen bere bilakaeran eta uztailarekin alderatuta puntu pare bat okertu zen, ondorioz, bere posizio historiko onenetatik aldentu da. Hiru sektore nagusien profila ez zen hain hedakorra izan abuztuan, eta txikizkako merkataritzaren une onak soilik konpentsatu zuen partzialki. Espainiaren kasuan, gorabehera txikiak antzeman dira adierazle horretan azken lau hilabeteetan. Zerbitzuek intentsitate apur bat galdu dute, baina familien konfiantza, txikizkako merkataritza eta eraikuntza hobetu egin dira abuztuan.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA




Iturria: Europako Batzordea.

NDF-REN AURREIKUSPENAK

Munduko ekonomiaren susperraldian ziurtasunik ez dago

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022


NDFren azken txostenean, uztailean argitaratutakoan, munduko hazkunde tasa %6,0an eta %4,9an kokatuko da, hurrenez hurren, 2021ean eta 2022an. Testuinguru globalean, alde sakonak ageri dira eskualdeen eta herrialdeen artean, batez ere, txertoak eskuratzearen ondorioz. Horrela, alde batetik, ekonomia aurreratu ia guztiak egongo lirateke, 2021aren amaieran jardueraren normalizazioa lortzea espero dutenak, eta, bestetik, pandemiaren hedapenarekin borrokan jarraitzen duten herrialdeak. Hala ere, birusaren aldaeren eraginari buruzko ziurgabetasuna oso handia da mundu osoan.

NDFREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
Munduko ekonomia	-3,2	6,0	4,9	0,0	0,5
Ekonomia aurreratuak	-4,6	5,6	4,4	0,5	0,8
AEB	-3,5	7,0	4,9	0,6	1,4
Eurogunea	-6,5	4,6	4,3	0,2	0,5
Alemania	-4,8	3,6	4,1	0,0	0,7
Frantzia	-8,0	5,8	4,2	0,0	0,0
Italia	-8,9	4,9	4,2	0,7	0,6
Espainia	-10,8	6,2	5,8	-0,2	1,1
Erresuma Batua	-9,8	7,0	4,8	1,7	-0,3
Japonia	-4,7	2,8	3,0	-0,5	0,5
Garatzen ari diren herrialdeak	-2,1	6,3	5,2	-0,4	0,2
Txina	2,3	8,1	5,7	-0,3	0,1
India	-7,3	9,5	8,5	-3,0	1,6
Errusia	-3,0	4,4	3,1	0,6	-0,7
Brasil	-4,1	5,3	1,9	1,6	-0,7

EKONOMIA AURRERATUEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

AEBETAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

ERRESUMA BATUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Erakundeak lehentasunezko gomendio gisa ezartzen du mundu osoan txertoak eskuratzeko lankidetzat. Halaber, finantza alorrean mugak dituzten ekonomiei finantza likidezia erraztea ere gomendatzen da. NDFk berotegi efektuko gasen emisioa murrizteko ahalegin kolektiboak areagotzeko beharra azpimarratzen du. Lehentasun horiek betetzera behar bezala bideratutako politikek susperraldi global eta jasangarria lortzeko oinarriak ezarriko dituzte.

Egungo egoeraren gaineko arriskuak beheranzkoak dira. Txertaketa kanpaina uste baino mantsoagoa izateak birusaren balizko mutazioak ekarriko lituzke, eta horrek susperraldian edukiko lukeen eragina negatiboa izango litzateke, baina zenbateko zehaztugabea. Ekonomia aurreratuetako presio inflazionistek moneta politikan aldaketak eragin ditzakete banku zentralen aldetik.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Iturria: FMI.



Igurikimen baikorrak udaren ostean

Ikasturte berri bati ekin diogu eta jasotzen ari garen sentsazioak oporren aurretik genituenen oso antzekoak dira. Horren adibide ona da abuztuko sentimendu ekonomikoaren adierazlea, Europako Batzordeak argitaratzen duena. Izan ere, **uztailean serie historikoaren maximoa markatu ondoren, abuztuan nahiko ondo mantendu da, hilabete horretan bere dinamismo handia pixka bat baino ez baitu arindu**. Oro har, industriak maila maximoetan jarraitzen du eta zerbitzuak apur bat moteldu dira, nahiz eta hedapen eremuan jarraitzen duten. Familiak baikorrak dira oraindik, eta txikizkako merkataritza ez dago bere markarik onenetatik urrun. Gainera, enpleguari buruzko igurikimenak nabarmen hobetu dira hilabete horretan, eta 2000ko maiatzean erregistratutako baliotik (serie historikoaren maximoa hileko hartan eskuratu baitzen) lau puntura baino ez daude. Era berean, PMI indizeek oso balio altuak izan dituzte, baina uztaileko mailara iritsi gabe, neurri batean manufakturek osagai jakin batzuen hornidurarekin duten arazoagatik.

Estatistika horren osagarri gisa, Eurostatek Europako langabezia tasaren uztaileko datua argitaratu du, eta aldagai horrek beheranzko zuzenketa prozesuarekin jarraitzen du. Hain zuzen ere, hilabete horretan, **euroguneko tasa %7,6 izan zen, ekainekoa baino bi hamarren txikiagoa eta 2020ko uztailean zegoena baino zortzi hamarren apalagoa**. Beste erreferentzia pare bat, ikuspegi zabalagoa izateko: 2020ko martxoan, pandemia hasi zenean, tasa %7,1 izan zen, eta 2008ko otsailean, Atzeraldi Handiaren hasieran, %7,3. Beraz, erritmo horretan langabezia murrizten jarraituz gero, oso litekeena da hilabete gutxi barru euroaren eremua balio horietara itzultzea. Eta, auskaloi!, %7,0tik beherako tasa ere ikus genezake, bere hogeita bost urteetan serie historikoak inoiz gertatu ez dena.

Euskadiri dagokionez, lan merkatuaren bilakaera ona azpimarratu behar da, Gizarte Segurantzako afiliazioak nabarmen egin baitu gora eta langabeziak, berriz, behera egin du modu esanguratsuan. Lehenengo kasuan, Gizarte Segurantzaren afiliazioa %1,5 areagotu zen abuztuan, aurreko bi hiletan baino gutxiago, baina konparazio homogeneoago bati erantzuten dio oraingoak. Izan ere, oraingo alderaketa egiten da 2020ko hilabete batzuekin, zeinetan jarduerak berriz irekitzeko prozesua fase aurreratuago batean baitzegoen. Horri esker, **aurtengo afiliazioen kopurua 2019ko abuztuan izandakoa baino %0,4 txikiagoa da bakarrik**, eta, beraz, koronabirusa iritsi aurreko egoerara itzultzetik oso gertu dago.

Erregistratutako langabeziari dagokionez, udako hilabeteetan ezagutu den jaitsiera oso esanguratsua izan da, eta %10etik gorako murrizketa tasak jaso dira maiatzetik abuztura bitarteko lau hilabeteetan. Azken hilabete horretan, urtetik urterako tasa **-%16,5 izan zen**. Mailatan adierazita, **orain 122.300 pertsona daude Lanbideko bulegoetan langabe gisa erregistratuta, hau da, urtebete lehenago zeudenak baino 24.200 gutxiago**. Hala ere, 2019ko abuztuan erregistratu zirenak baino 6.200 pertsona gehiago daude oraindik, eta, beraz, hilabete batzuk gehiago beharko dira pandemiaren aurreko egoerara itzultzeko. Txertaketa prozesuak aurrera jarraitzen badu eta birusaren mutazio gaiztorik gertatzen ez bada, duela bi urteko langabezia mailan laster egotea espero da.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020			2021	
			II	III	IV	I	II
BPG	2,2	-9,5	-19,5	-7,5	-7,6	-2,9	18,5
Barneko azken kontsumoa	1,9	-7,5	-15,4	-5,9	-5,7	-2,6	—
Familien kontsumoa	1,8	-10,7	-20,3	-8,5	-9,1	-3,7	—
Administrazioaren kontsumoa	2,2	4,5	3,0	3,6	7,2	1,6	—
Kapital eraketa gordina	3,3	-11,6	-23,0	-11,4	-8,4	-1,3	—
Barne eskaria	2,2	-8,5	-17,2	-7,2	-6,4	-2,3	—
Esportazioak	0,4	-17,1	-30,1	-15,5	-14,8	-2,4	—
Inportazioak	0,4	-15,3	-26,4	-14,8	-12,7	-1,3	—
Lehen arloa	3,2	-9,3	-6,1	-7,2	-26,3	-7,1	—
Industria eta energia	1,3	-11,8	-26,7	-9,5	-7,2	-1,1	—
Eraikuntza	3,4	-9,5	-17,9	-9,3	-8,2	-2,4	—
Zerbitzuak	2,5	-8,5	-17,5	-6,5	-7,1	-3,5	—
Balio erantsi gordina	2,3	-9,3	-19,6	-7,4	-7,4	-2,9	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,2	-10,4	-18,4	-8,5	-9,6	-3,0	—
Enplegua	1,5	-8,1	-17,2	-6,2	-6,3	-2,1	16,6

EKAINEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2021			2021	2022
	II	III	IV		
BPG	18,1	6,0	7,4	6,7	5,7
Barneko azken kontsumoa	15,6	5,3	7,2	6,1	5,0
Familien kontsumoa	19,4	6,1	8,7	7,1	6,0
Administrazioaren kontsumoa	4,5	2,4	2,4	2,7	1,8
Kapital eraketa gordina	23,9	8,3	7,5	8,9	5,8
Barne eskariaren ekarpena	18,5	6,2	7,6	6,9	5,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,4	-0,2	-0,2	-0,2	0,3
Lehen arloa	8,5	8,2	10,6	4,6	8,4
Industria	29,1	7,4	7,1	9,5	5,0
Eraikuntza	16,8	5,3	6,7	6,2	5,1
Zerbitzuak	15,7	5,8	7,6	6,0	5,9
Balio erantsi gordina	18,6	6,1	7,5	6,8	5,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	13,3	5,1	7,3	5,4	5,9
Lanaldi osoko lanpostuak	15,0	3,4	4,2	4,9	3,2
Landunak (BJA)	2,3	2,4	1,0	0,8	1,2

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
Confebask	7,2	—	CEPREDE	5,7	5,6
Hispalink (BEGren aldak.)	7,0	5,0	BBVA	5,5	7,5
Laboral Kutxa	6,3	6,8	Funcas	5,5	—

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020			2021	
			II	III	IV	I	II
BPG	2,0	-10,8	-21,6	-8,6	-8,9	-4,2	19,8
Kontsumo pribatua	0,9	-12,4	-25,2	-9,4	-9,6	-4,2	29,5
Kontsumo publikoa	2,3	3,8	3,3	4,0	4,5	3,2	3,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,7	-11,4	-24,3	-9,0	-7,2	-3,2	19,9
- Aktibo finko materialak	2,7	-13,3	-27,9	-10,0	-8,3	-3,9	22,7
- Eraikuntzan	1,6	-14,0	-25,4	-12,5	-11,5	-10,7	10,4
- Ekipamendu ondasunetan	4,4	-13,0	-33,3	-6,9	-4,2	6,2	45,3
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,6	-1,7	-5,5	-3,7	-1,2	0,4	8,9
Nazio eskaria (ekarpena)	1,4	-8,8	-18,7	-6,7	-6,3	-2,6	20,3
Esportazioak	2,3	-20,2	-38,0	-19,7	-16,0	-9,7	34,1
Inportazioak	0,7	-15,8	-32,6	-15,7	-9,4	-5,2	36,8

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	6,4	5,8	Intermoney	6,8	6,7
Axesor	6,0	5,7	Mapfre Economics	6,0	6,0
BBVA	6,5	7,0	Oxford Economics	6,6	6,1
CaixaBank	6,0	4,8	Repsol	6,1	5,8
Cámara de Comercio España	5,9	6,2	Santander	6,0	7,0
Cemex	6,0	6,3	Metyis	5,7	5,6
CEEM-URJC	6,0	5,5	Universidad Loyola Andalucía	6,1	6,6
CEPREDE-UAM	6,4	4,8	Consenso (batez bestea)	6,1	6,1
CEOE	5,7	6,0	Gobernua (2021-04)	6,5	7,0
Equipo Económico (Ee)	6,3	4,9	Espainiako Bankua (2021-06)	6,2	5,8
FUNCAS	6,3	5,8	Europar Batzordea (2021-07)	6,2	6,3
ICAE-UCM	6,2	8,8	NDF (2021-04)	6,4	4,7
IEE	5,4	5,7	Consensus Forecast (2021-07)	5,9	5,8

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020			2021	
			II	III	IV	I	II
AEB	2,2	-3,5	-9,1	-2,9	-2,3	0,5	12,2
Txina	6,1	2,0	3,2	4,9	6,5	18,3	7,9
Japonia	0,3	-4,7	-10,2	-5,5	-1,0	-1,5	—
Kanada	1,9	-5,3	-12,6	-5,1	-3,1	0,3	13,8
Europar Batasuna	1,6	-6,0	-13,6	-3,9	-4,3	-1,3	13,2
Eurogunea	1,4	-6,4	-14,4	-4,0	-4,6	-1,3	13,6
Alemania	0,6	-4,8	-11,3	-3,7	-2,9	-3,2	9,2
Frantzia	1,8	-7,9	-18,7	-3,6	-4,2	1,7	18,7
Erresuma Batua	1,4	-9,8	-21,4	-8,5	-7,3	-6,1	—
Italia	0,3	-8,9	-18,2	-5,2	-6,5	-0,7	17,3
Herbehereak	2,0	-3,8	-9,1	-2,6	-3,1	-2,2	9,7

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2021EKO UZTAILA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
AEB	6,6	4,4	3,7	2,8	5,5	4,2
Japonia	2,5	3,0	0,0	0,5	2,8	2,7
Kanada	6,2	4,2	2,8	2,4	7,5	6,2
Europar Batasuna	4,4	4,3	2,0	1,6	—	—
Eurogunea	4,6	4,4	1,9	1,4	8,3	8,0
Alemania	3,4	4,3	2,6	1,8	5,9	5,4
Frantzia	5,6	4,0	1,5	1,2	8,4	8,4
Erresuma Batua	6,8	5,3	1,9	2,4	5,2	5,3
Italia	4,9	4,2	1,4	1,2	10,4	10,1
Espainia	5,9	5,8	1,9	1,3	—	—
Herbehereak	3,0	3,3	1,9	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.